

Bassam eta Raghad: ongi etorriak zuen etxera

hiru seme-alabekin bizi ziren
Korakoch hiriaren ondoan

2015 Aza 25

Olivia eta Thimothéek zazpi seme-alaba dituzte eta Lille eta Valenciennes-en arteko herri txiki batean bizi dira, Frantzian. Beren etxean Irakeko familia kristau bat jaso dute: Bassam eta Raghad, beren hiru seme-alabekin, 9, 7 eta 3 urtekoak hauek. Abuztuan

Karakochetik ihes egin behar izan zuten.

Oliviak honela dio: “Abuztuaren erdialdean adiskide dugun apaiz baten deia hartu genuen. Erbilan, Kurdistaneko hiriburuan, Irakeko ehunka errefuxiatu kristauen egoeraren berri eman zigun. Abegi-familia bat bilatzen ari zen Frantzian. Kristau hauek gauez ihes egin behar izan zuten, dena atzean utzirik”.

Bassad, Raghan eta beren hiru seme-alabek Irakeko elkarte kristau handiena biltzen zen hiria, Karakoch, Mosuletik hurbil, utzi behar izan zuten. Estatu Islamikoko yihadistek Karakoch hartu zuten. Lurralde hartako milaka eta milaka pertsona atera behar izan ziren bortxakeriatik ihes egiteko.

Louis Sako Patriarka Kaldearrak esan zuen, 100.000 kristauak bortxakeriatik ihes egin zutela eta

yihadisten esku dauden hirietan
“elizak hartuak daude eta gurutzeak
kendu dira”.

Karakoch hiri guztiz kristaua zen,
Mosul, Estatu Islamikoaren eskuetan
dagoen Irakeko hiri nagusia, eta
Erbil, Kurdistan lurralde
autonomikoaren hiriaren artean
kokatua.

“Egoera izugarria zen –jarraitzen du
esaten Oliviak- eta laguntza eskaera
hark benetan ukitu gintuen. Gure
senideekin bat eginik sentitu ginen,
gu bezala bataiatuak ziren haiekin
eta beren fedeagatik jazarriak. Egun
batetik bestera erabateko pobrezian
aurkitu ziren”.

“Baina, aldi berean, esan behar dut,
bagenuen ere harrera egiteko
errezelo pixka bat. Zazpi seme-alaba
ditugu, gure etxea ez da hain
handia... Aldeko eta kontrako gauzak
kontutan hartuta, garbi zegoen gure
erosotasuna murriztu egingo zela.”

Gure adiskide apaizak bederatzi familientzat bilatzen zuen harrera. Gu pentsatzen ari ginen bitartean, nire aita-amaginarrebek talde bati harrera egitea erabakia zuten. Familia hura ikustean pentsatu genuen: Ezin dugu gehiago zalantzan egon. Gure seme-alaba zaharrenek, 15 eta 14 urtekoek, onartzera bultzatu gintuzten. ‘Lekua egin diezaiekegu’ esan zuten, ‘etxea beste modu batez antolatuko dugu eta laguntza bila dezakegu’.”

Egoera haren larritasunari begira, Frantziakekialdeko kristauei babes emateko gauzak erraztu ditu. Administrazio prozedurak errazak izan ziren. “Momentuz abentura apartekoa da. Bassam eta Raghad, eta haien hiru seme-alabak handik denbora gutxira heldu ziren kontsulatuaren aurrean guk emandako abalari esker”.

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/bassam-
eta-raghad-ongi-etorriak-zuen-etxera/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/bassam-eta-raghad-ongi-etorriak-zuen-etxera/)
(2025 Abu 11)